

# AZAROAK25

Indarkeria Matxisten aurkako nazioarteko eguna

## LANTOKIETAN ASKE IZATEKO

Contre les violences machistes dans les lieux de travail



www.lab.eus  
/langileon-alde-hemen-erabaki/

## LANTOKIETAN ASKE IZATEKO INDARKERIA MATXISTAK IKUSARAZI!

Urteak daramatzagu sindikalismo feministatik, **indarkeria matxista egiturazkoa dela azpimarratzen eta lan munduan ematen diren erasoak salatze**ko eta **indarkeria mota guztiei aurre egiteko tresnak eraikitzen**. Urteak daramatzagu **LANTOKIAK ASKE** aldarrikatzen: lantokiz lantoki protokolo eraginkorrak borrokatzen eta instituzioak interpelatzeko dagokien ardura har dezaten lehen mailakoa izan beharko litzatekeen arazo politiko eta sozial honetan.

Lantokietako indarkeria matxista **ezkutuan mantentzen den errealitatea da**: lanik gabe gelditzeko mehatxua beti dago horren atzean, horregatik indarkeria ez da behar beste salatzen ezta aditzera ematen ere. Mehatxuak eta zigorrak askotarikoak dira: kanporaketak, ordutegi aldaketak, lanpostuz inoiz ez aldatzea, lekualdaketak, edukiz hustu lana, gure lanaren gutxiespena... Indarkeria matxista dimentsio eta aurpegi ezberdinak dituen zigor-sistema oso bat da; egiturazkoa eta sistema heteropatriarkal kapitalistaren tresna da, emazteak\* menpean mantentzeko. Lan munduan ematen den indarkeria honek sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpenaz edota sexu-orientazioan edo genero-identitate nahiz adierazpenean oinarritutako jazarpenaz ari gara. Hau da, kultura patriarkalaren biziraupen mekanismoek hartzen dituzten forma ezberdinez.

Eta eraso matxisten aitzinean instituzioak non dira? Ematen den indarkeria hau ez ikusaraztea, tresna eraginkorrak ez jartzea, indarkeria hau **ezkututzea** dela esan nahi dugu. Izan ere, ez dago datu hauen inguruan zerrendatzerik, ez zaio jarraipenik egiten, indarkeria matxistaren inguruko inkesta orokorretan ez dira agertzen...

Ez enpresek, ez administrazioak ezta lan ikuskaritzak ez dute errealitate honi heltzeko borondate eta baliabiderik. Datuak argiak dira; ez dago egoera hauek salatzeko mekanismo eta tresna eraginkorrik. Instituzioei, zehazkiago **lan ikuskaritzari, eskatzen diogu indarkeria matxistari aurre egiteko politika eraginkorrak garatzea**.

Jarrera, sinesmen eta indarkeria matxista guztiei aurre egin nahi diegula esaten dugu LANTOKIETAN ASKE izan nahi dugula aldarrikatzen dugunean. Eta azpimarratu nahi dugu, borroka honetan jarraituko dugula sindikalismotik fronte guztietan. Ez dugu txiste sexistarik entzuten jarraitu nahi aldageletan, nahi dugun bezala jantzi eta adierazteko eskubidea izan nahi dugu, guztion lanari balio bera ematea aldarrikatzen dugu... **eta zuk, zer behar duzu lantokietan indarkeria matxistarik gabe aske sentitzeko?**

**LAB** sindikatuak azaroaren 25ean Indarkeria matxisten aurkako nazioarteko eguna kari antolatutako mobilizazio guztietan parte hartzera deitzen du.



**25 NOVEMBRE**  
Journée Internationale contre les violences machistes  
**LANTOKIETAN**  
**ASKE IZATEKO**  
Visibiliser les violences machistes  
pour être libre au travail !



www.lab.eus  
/langileon-alde-hemen-erabaki/

## VISIBILISER LES VIOLENCES MACHISTES POUR ÊTRE LIBRE AU TRAVAIL !

Depuis des années par le prisme du syndicalisme féministe, nous insistons sur le fait que **la violence machiste est structurelle et développons des outils pour dénoncer tout type d'agressions dans le monde du travail et faire face à toutes les formes de violence. Nous revendiquons depuis des années le droit d'être LIBRES AU TRAVAIL** : en luttant pour la mise en place de protocole efficace dans les entreprises et collectivités et en interpellant les institutions pour qu'elles assument leur responsabilité dans ce problème politique et social qui devrait être prioritaire.

La violence machiste dans les lieux de travail est **une réalité qui reste occultée** : la menace du chômage plane toujours, c'est pourquoi la violence ne se dénonce pas et ne se fait pas suffisamment entendre. Les menaces et les sanctions sont multiples : licenciements, changements d'horaires, ne jamais changer de poste de travail, mutations, métiers vidés de sens, mépris de notre travail... La violence machiste est un système punitif à différentes dimensions et plusieurs visages ; elle est structurelle, elle est un outil du système hétéropatriarcal capitaliste pour maintenir les femmes\* sous domination. Cette violence dans le monde du travail englobe le harcèlement sexuel, le harcèlement en raison de l'orientation sexuelle ou de l'identité et de l'expression de genre. Tous ces mécanismes qui font perdurer la culture patriarcale.

Où sont les institutions face aux agressions machistes ? Nous affirmons que ne pas rendre visible cette violence, ne pas mettre en place des outils efficaces, c'est occulter cette violence. Les données ne sont pas recensées, elles ne sont pas suivies, elles ne figurent pas dans les enquêtes générales sur la violence machiste...

Ni les entreprises, ni l'administration, ni l'inspection du travail n'ont ni la volonté ni les moyens de s'attaquer à cette réalité. Les données sont claires, il n'y a pas de mécanismes et d'outils efficaces pour signaler ces situations. **Nous demandons aux institutions, plus particulièrement à l'inspection du travail, d'élaborer des politiques efficaces contre la violence machiste.**

Nous voulons faire face à toutes les attitudes, croyances et violences machistes quand nous revendiquons le droit à être LIBRES AU TRAVAIL. Et nous tenons à souligner que nous allons continuer la lutte syndicale sur tous les fronts. Nous ne voulons pas continuer à écouter des blagues sexistes dans les vestiaires, nous voulons avoir le droit de nous habiller et de nous exprimer comme nous le voulons, nous revendiquons que notre travail à autant de valeur... **et toi, de quoi as-tu besoin pour te sentir libre sans violence machiste au travail?**

**Le syndicat LAB appelle à participer à toutes les mobilisations du 25 novembre dans le cadre de la Journée internationale contre les violences machistes.**

